

Laida Ventureira Sarasola

E maila • 3 saria

Kaixo guztioi! Ni Laida Ventureira naiz eta Beasaingo La Salle ikastetxean ikasten dut. Asko gustatzen zait jendearekin harremanetan egotea, lagunekin eta familiarekin, adibidez. Nire zaletasunak hauek dira: mendira joatea, kirol ezberdinak egitea, zinemara joatea eta musika entzunez dantza egitea.



AMONA, NITAZ GOGORATZEN?

Eskolako txirrinak jo zuen, arratsaldeko 17:00-tak ziren eta zalapartaka jaitsi nituen eskailerak nire lagunekin etxera joateko.

Natale naiz, neska alaia, ile kizkurduna, kirolaria eta atsegin dut lagunekin egotea. Ama etxean nuen zain ogitarteko goxoarekin sukaldean.

- Ogitartekoa eta baloia hartuta jolas parkera noa. Agur ama! -esan nion pozik.

Afaltzeko ordua zen, laurok mahaira joan ginen afaltzera. Gurasoek albiste bat kontatu behar zigutela esan ziguten nebari eta niri. Harrituta begiratu ginen elkarri.

- Amona Mirari gure etxera dator bizitzera.

Neba eta biok oso pozik jarri ginen hori entzutean. Amonak 70 urte beteta zituen, begi urdinak, ile zuria, aurpegi zimurtua... baina beti zuen irribarrea ahoan.

Hirurok bere logela prestatzera joan ginen, arropa gorde genion, ohea prestatu, eta argazkitxo bat jarri nion ohe alboan.

Gauero, amonak bere gaztaroko istorioak kontatzen zizkidan eta nik nire egunerokoa hartu eta han idazten nituen. Oso interesgarriak iruditzen zitzaizkidan.

Egunak pasa ziren eta amonak eta biok geroz eta gutxiago ibiltzen ginen elkarrekin. Amak kontatu zidan amonari gauzak ahazten ari zitzaizkiola: egun batean, harategira joan zela fruta eroatera eta beste batean, ez zekiela zertarako behar ziren eskularruak.

Amona etxean egoten zen ni eskolatik bueltan etortzen nintzenean. Batzuetan ama, amonarekin jaisten zen etxe azpiko paseora, baina, ni triste egoten nintzen gauetan amonak ez zizkidalako istorioak kontatzen.

Azkenean, gurasoak erabaki zuten zaharren egoitzara eramatea geroz eta gaixoago zegoelako. Bertan, ondo zainduko baitzuten.

Eskolako txirrina jo bezain azkar ogitartekoa hartu gabe, amonarengana joan nintzen bisitan. Ez ninduen ezagutu. Oso triste sentitu nintzen.

Urte bat igaro da amona gurekin ez dagoenetik. Alzheimer gaixotasunarekin hil zen, baina, beti izango dut nire egunerokoa bere oroitzapen eta istorioez betea esku eta bihotzean.